

Durangoko Udala bere historiako lehen kontsulta herritarra prestatzen ari da

Udalaren lana herritarrei proiektuaren berri ematea eta partehartzea bultzatzea izango dela ziurtatu dute udal ordezkariak, lau faseko prozesu baten bidez.

Durangoko Udalak aurtengo martxoaren 14an egingo den trenbidearen inguruko Durangoko historiako lehen herri-konsultan herritarren partehartzea sustatzeko prozesua aurkeztu du. Prozesu horrek lau fase izango ditu, eta Durangoko Udaleko ordezkariak proiektuaren eta kontsultaren ezaugarriak azaltzen saiatuko dira bertan.

"Zalantzan jartzen den trenaren lur zaharren proiektuari buruzko informazio guztia helarazi nahi diegu durangar guztiei. Gure ustez, ezinbestekoa da durangarrak jakinaren gainean jartzea, kontzienteki eta datu guztiak mahai gainean jarrita bozkatu ahal izateko. Udal hau, erakunde bezala, ez da inongo aukeraren alde edo kontra agertuko, partehartzea sustatzera mugatuko da", azaldu dute Udaleko ordezkariak.

Lau fase desberdin

Lehen fasean (dagoeneko martxan dago), Udaleko langileek proiektuaren aurrekariak eta kontsultaren bi erantzunetan izan ditzakeen ondorioei buruzko informazio guztia bildu dute.

Bigarren fasean, Udala herriko eragile sozialekin biltzen hasiko da, bildutako informazioa helarazteko eta kontsultaren prozesu osoa azaltzeko.

Hirugarren fasean, Udalak herritar guztiei zuzendutako informazio-kanpaina bat egingo du, eta, saio irekien bidez, trenbidearen inguruko proiektuaren berri emango du. Hirugarren fase honetarako hainbat bilera aurreikusi dira herriko hainbat gunetan eta online bitartez.

Azken fasea hauteskunde kanpaina bera izango da, Durangon egiten diren hauteskundeetan erabiltzen diren mekanismo berberekin. Zentzu horretan, boto aukera guztiek aukera berdina izango dituztela ziurtatuko du Udalak.

"Aukera paregabea dugu durangarrok Durangorentzat ezinbestekoa den proiektu baten inguruan dugun iritzia emateko. Lehenengo aldiz bozkatu ahal izango dugu kontsulta herrikoi batean, eta horrek ahalegin handia suposatuko digu herritarrei informazio guztia helarazteko. Datozen hilabeteak biziak izango dira, botoa eman aurretik durangarrek informazio guztia mahai gainean izatea nahi dugulako", azaldu dute Udaleko iturriek.